

# Carmelo Bernaola

## Datu Orokorrak:

Euskal musikagilea (Otxandio, 1929 – Madril, 2002). Ikasketak Madrilen eta Erroman egin zituen. Gasteizko Musika Eskolako zuzendaria izan zen eta zinemarako lan ugari egin izan zituen. Bere familiari buruz ez dakigu asko, haiekin Burgosera bizitzera joan zela bakarrik, guda zibila hai zenean.

## Nahiak eta lorpenak + Lana eta ondorioak:

Berak betidanik musikaria nahi izan zen, eta hori nola lortu zuen azalduko dut. Burgosen musika




hirukote bat osatu zuen eta Burgoseko Musika Bandan sartu zen, han, martxak eta bestelako konposizioak egin zituen. Hango hiriburuan musika klaseak jasotzen hai zen Amoreti, Blanco eta Quesada maisuen partez. 1951. urtean Madrilera bidali zuten ejerzitoaren klarinete jole gisa. Horri esker, kontrapuntua, fuga eta konposizioa ikasi zuen. 1953an Madrilgo Udalaren klarinete jole ofiziala bihurtu izan zen, gainera, Erromako Saria jaso zuen eta Italiara joan zen bizitzera. Han Goffredo Petrassiren ikaslea izan zen, Goffredok (Barnaolaren hitzetan) bere lengoia musikala “latinizatu zuen”.

1962an lortu zuen bere *primer cuarteto*arekin, gainera, Madrilera itzuli zen hango kontserbatorioko harmonia irakaslea izatera. Gutxi barru, Musika Zinematografikoaren irakasle izendatu zuten Valladolideko unibertsitatean. 1981ean Gasteizera joan zen denboraldi bat pasatzera, hango kontserbatorioko zuzendaria baitzen. Jubilatatu ondoren Madrilera itzuli zen, hil egingo zen hirira.

Bernaola bere denboraldiko espainiar konpositoreen arteko garrantzitsuenetarikoa bezala hasi zen ezagutzen 1990ean. 1992an Musika Sari Nazionala eman zioten berriz ere konposiziaren esparruan. Gainera, 1988an Honoris Causa doktorea bihurtu zen Madrilgo Complutense Unibertsitatearen partez. Urte horretan bertan, Musika Original Onenaren saria lortu zuen goyen banaketan.

Bizkaitar musikariak miresmen handia zien Vienako Bigarren Eskolako konpositoreei, Weberni batez ere, eta estetikoki hurbila kontsideratzen zitzaion Cristobal Halffter eta Luis de Pablarekin konparatuta. Hauek, berarekin eta beste konpositore batzuekin batera, “51. generazio”-ko ordezkariak izan ziren. De Pablari esker dodekafonismoarekin lehenengo kontaktuak izan zituen. Bere musika estiloa, eskolan ikasitakotik hasi zen eta kriterio akademikoak jarraitu izan zituen 70. hamarkadara arte. Denboraldi horretan, zorizko lengoia hai zen erabiltzen, gainera, serialismoari garrantzia ematen hasi zion.

Bere formazio tradizional landuak lengoia aurreratu eta pertsonalarekin lan egiten lagundu zion. Bere musikan bere orkestaziorako talentua ikusten da.



## Emaitzak:

Bernaola gauza askorengatik gogoratu beharko litzateke. Ez bakarrik Espaina mailako konpositore handienetakoa izateagatik, konpositore EUSKALDUN famatu, ezagun eta talentoduna izateagatik baizik. Gainera, bera euskaldun izateaz oso harro zegoen, nahiz eta bere musikak puntu folkloristarik ez izan. Hainbat obra konposatu zituen: *Piccolo concerto*, *Constantes*, *Sinfonietta Progresiva*, *Espacios variados*, *Morfología*, *Traza*, *Heterofonías*, *Música de Cámara*..